

Estrasburgo, de 28 de abril de 1983, texto del BOE, Madrid, 17 de abril de 1986); 3º. Decisión del Consejo Constitucional francés al Nº 85-188 DC, de 22 de mayo de 1985; 4º.- Estado de firmas y de ratificaciones al Protocolo Nº 6; 5º.- Segundo Protocolo Facultativo del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos destinado a abolir la pena de muerte, de 15 de diciembre de 1989 (B.O.C.G., Serie C, 18 de septiembre de 1990); 6º.- Lista de países abolicionistas y no abolicionistas, en la actualidad.

En definitiva, un libro atractivo y atrayente, que informa al profano y enriquece al científico, dada la dimensión claramente internacional que ofrece, y que envuelve toda la problemática relativa a la sanción capital. Interrogantes y respuestas jurídicas, criminológicas y penológicas, integran el conjunto de las aportaciones y brindan una cosmovisión del tema que será gratamente acogida por todos los interesados en él.

Francisco Etxeberria

COLAS, M. P.; BUENDIA, L.
Hezkuntzaren Ikerkuntza
Bilbo: EHU/UPV, 1995

Hemen aurkezten dugun liburua, Sevilla eta Granadako unibertsitateko lankideak diren M.Pilar eta Leonorrek, 1992garren urtean idatzitakoaren itzulpena da. Jatorrizkoa argitaratu zenean, hezkuntzako ikerkuntzaren munduan murgiltzen garenontzat tresna lagungarria izan bazen ere, ikerkuntzaren inguruan dabilen euskaldunentzat, zer esanik ez. Liburu hau eskuliburu bat da eta nahiz irakasle-ikasleentzat, nahiz hezkuntzan burutzen den ikerkuntzaz kezka eta ardurak dituen edonorentzat zuzenduta egon daiteke.

Eskuliburu honek, ondorengo helburu hauek ditu xedetzat: gaur egun hezkuntzaren ikerkuntza-arloan dauden metodologi joerak bildu; metodologi desberdinen ikuspegi orokorrak eskaini; arlo teoriko eta egintza praktikoen arteko ikerkuntzak projektatu, egin eta ebaluatzeko oinarritzat zerbi lezakeen gidaliburu praktikoa eskaintzea.

Liburu honetan hiru atal nagusi bereiz ditzakegu. Lehenengoan, ikerkuntzari buruz zenbait aspektu teoriko garatzen dira, hala nola, Hezkuntzaren arloko ikerkuntzaren egoera eta garen historikoa, hezkuntzan aplikatzen diren ikerkuntzametodoen ikusmolde nagusiak, sailkapenak, ikerkuntza-prozesu osoaren deskribapena eta ikerkuntzako txostenen arteko desberdintasunak eta xehetasunak.

Bigarren atalean, konklusiotara bideratzen diren ikerkuntzamota nagusien deskribapenari ekiten diote egileek, Horien artean, metodo deskribatzaile, korrelazio-metodo eta esperimentuzko metodoen ikerketa-prozesuen deskripziozehatza, motak, aplikazioeremuak, datu bilketako teknikak eta adibideen aurkezpen argi eta didaktikoa eskaintzen digute.

Hirugarrenean, azkenurteetanpresentzia garrantzitsua lortu duen metodologia kualitatibolari buruzko gogoeta sakona eskaintzen zaigu, datu-bilketa eta azterketarako teknika kualitatibo eta ikerkuntza/ekintzaren inguruko deskripzio zabala emanez.

Azkenik, liburuaren bukaeran itzulzaileak prestatu duen hiztegiari, aipamen berezia egin nahiko nioke. Hiztegi hau, Hezkuntzan eta konkretuko Hezkuntzaren Ikerkuntzan gabiltzanok

aspaldidanik sumatu dugun hutsunea betetzera etorri da. Bai eskoletako materialak prestatzeko, bai doktorego-tesiak burutzeko, bai proiektuak egiteko eta dudarik gabe euskara normalizatzeko ezinbesteko tresna dugu hiztegi hau.

Beraz eta laburbilduz, merkatuan zegoen eskaintzarekiko, liburu honek dakarren aurrerapenaz gain, ikerkuntzaz kezkatuta gauden euskaldunentzat, lehendabiziko euskarazko erreferentzia garbia daukagu eta honek, gaurtik aurrera egin beharreko lanan hobekuntza eta txukuntasunerako bide berriak irekitzen ditu.

Urte hauetan, indarrean ipintzen ari diren ikasketa-plan berriei begiratu, oinarrizko testua izatera deituta dago obra hau. Hain zuzen ere, Ikerkuntzaren esparruan euskaraz eskaintzen diren ikasgaientzat eta ez bakarrik "Pedagogian lizenziatua" tituluari, baizik eta "Gizarte Hezitzailea" diplomatura eta "Psikopedagogia" lizentziatura tituluari ere.

Carlos M^a Santiago Etxeberria

ESPARZA SAN JUAN, X.

La Cueva de Isturitz. Su yacimiento y sus relaciones con la Cornisa Cantábrica durante el Paleolítico Superior
Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia, 1994. - 309 orr., 92 irudi, 12 taula (Aula Abierta 82)
ISBN 84-362-3144-9

Duela urtebete Isturitz haitzuloaren induketa ezberdinetan aurkitutako harrizko eta hezurrezko industriari ikerketa sakona liburu formatoan argitaratu da. Honen mamia ikertzaile honek 1991 -nibertsitate berberan defenditu zuen Doktore-Tesian biltzen da. Lan ikusgarri honetarako behar zuen datu-bilketa 1984 eta 1987 bitartean burutu zuen, inolako laguntza ofizialik gabe, Paristik hurbil dagoen Musée des Antiquités Nationales-ean (Saint-Germain-en-Laye), hemen kontserbatzen baitira aztarnategi honetako bilduma garrantzitsuenak. Gainera, ikerketa ahal zen osoena egiten saiatu zen Baionako Euskal Erakustokian kontserbatzen diren materialak ere aztertuz.

Lan hau aipagarria dela esateko arrazoi asko daude, baina lehenik gogora ditzagun Isturitz haitzuloaren inguruan egon diren hainbat zoritxarreko gertaera, horrelako baldintzak dituen aztarnategi baten ikerketak sortzen dituen mugez jabetzeko. Horrela, XIX. mendearen azken urteetan eremu mugatu bateko hezurak eta, fosfato gisa sistematikoki ustiatuak izan ziren, horko material arkeologiko ia guztiak hondatuz.

Lehenengo indusketa zientifikoak E. Passemard-ek (1913-22) egin zituen eta lan horien txosten orokorra 1944ean argitaratu zuen. Gainera, goraipatzekoak dira bere erabaki hauek: geletako indusketa eremuak azpizatitzea (gaur egun eskergarria dena bere garaian kritikatu izan zen), indusketa eremu txiki batera mugatzea eta aurkitutako material arkeologikoak Frantziako Museo Nazionalei saltzea bilduma sakabanatu ez zedin.

Bestalde, 1928tik 1952 arte, R. eta S. de Saint-Périer Konteek Passemardek utzitako lekuak ia neurririk gabe industu zuten eta euren lanen emaitza hiru monografiko ikusgarritan (aztarnategiaren deskripzio sakonak daude, irudi eta argazki ugari eta kalitatezkoak...) argita-